



# argitalpenak



## Edukualboan ALBOAN


Aldizkariaren azken zenbakiak pertsona guztiok dugun hezkuntza-eskubideari buruz hausnartzen du, eta bereziki emakumeen egoera azpimarratzen du, emakumeek hezkuntza-sistemetan nozitzen duten diskriminazioa azaleratuz. Aldizkariko gai zentralak Hezkuntzaren Aldeko Munduko kanpainak ematen dituen datuak esplikatzeko, munduko 760 milioi pertsona analfabeto baitira gaur egun. •



## Bat

### SOZIOINGUISTIKA KLUSTERRA

Hizkuntza normalkuntza eta glotopolitika aldizkariaren 78. zenbakiak III. Hausnartu sariaren irabazleak aurkezten ditu. Lehen saria Arrasateko gazteek musika eta euskararen artean zer nolako loturak egiten dituzten aztertzen duen lanak jaso du, Luis Azpiazu irakasleak eginiko lanak. Bigarren lana Galder Unzalurena da; hirugarrena, Patxi Juaristi Larrinagarena eta laugarrena, Roberto Manjonena. •




## Rita erraldoia Mikel Valverde ELKAR

Ritak altuago izan nahi du. Gelako txikiena da eta kokoteraino dago. Gainera, aldizkariaren batean irakurri du emakume altuek bakarrik dutela arrakasta. Gurasoei eskatuko die laguntza, baina ez kezkatzeko esaten diote beti, guztiak maite dutela den bezalako. Egun batean, ordea, azokan edabe magiko bat aurkituko du. Ausartuko al da edatera? •




## Hipo-krisia Unai Oñederra EZTABAIDA

Gaur egungo egoerari eta sistemari buruzko fabula bat idatzi du Unai Oñederra donostiarrak. Animaliak dira nobelako protagonistak eta haien pasadizoen bidez gaurko gizarte-ereduari kritika zorrotza egiten dio. Hipoa urmaelean bizi da, baina lekuz mugitu behar du, eta leku-aldatze hori saihesteko urmetagailua asmatuko du. •



## Buru ta zioak Fito Rodriguez UTRIUSQUE VASCONIAE

Nola idatzi eta irakurri behar den literatura, ideia horri buruzko gogoeta egin du Fito Rodriguezek *Buru ta zioak* saiakera-liburuan. Irakurtzeko zaletasunari buruzko gogoetak, baieztapenak eta kontraesanak, aforismoen bidez taxutu ditu eta bederatzi ataletan antolatu ditu. Lanak hiru ardatz ditu: hezkuntza, filosofia eta bertsolaritza. •



## 7 kolore Jon Arretxe EREIN

Duela hainbat urtetako proiektuari heldu dio berriro Jon Arretxe, eta *7 kolore* liburu arrakastatsua berriro argitaratu du, baina edizio guztiz berrituan, musikaz lagundua eta Cristina Fernandez irudi berriekin. Musika Francisco Ibañezek sortu du, eta lan berria jendaurrean aurkezten ere ari dira hiru egileak. •